

TENPERATURA BAXUETARAKO HARRERA BALIABIDEEN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2018ko azaroaren 12an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Azken asteetan, Irun eta Donostian migranteen harrera egiten duen harrera sareak komunikabideetan adierazi du negura begira harrera zerbitzuak beharko direla tenperatura baxuak daudenean migranteak gauez artatzeko.

Udalak badu zerbitzu bat, "Ateak Zabalik" izenekoa. Gauez aterpetzeko zerbitzu bat da eta hotzaldiak edo meteorologia baldintza bereziki gogorak iragartzen direnean zabaltzen da (Euskalmetek Gipuzkoako kostaldean izotz arriskua iragartzen duenean). 2017an, hamaika gauez zabaldu zen zerbitzua: urtarrilaren 3, 4, 5, 6, 7, 17, 18, 19, 20, eta 24an, eta abenduaren 2an. Iaz 94 lagunek erabili zuten (201 gaualdi).

Gure hirira migranteak iristen dira, transitoan edo ez, baina Udal Gobernuak ez du baliabide berririk aurreikusi negurako. Gainera, kale gorrian bizi direnen kontaketa, aurten (urriaren 18an), Donostiako kaleetan bizi diren pertsonen kopurua bikoiztu egin dela egiaztatu da: 2016ko kontaketa 48 pertsona zenbatu baziren, aurten 104 pertsona zenbatu dira gehi noraezean zeuden 50 bat pertsona migrante.

Horrez gain, uztailean iragarritako migranteentzako harrera zentro berria (Amaran ireki behar zena) ez da martxan jarri, horrek eragiten dituen hutsuneekin.

Hori dela eta, batzordeetan Gizarte-ekintzako delegatua interpelatu genuen eta gure kezka konpartitzen duela adierazi zigun. Aipatu zuen gogoeta bat egin dela kale kontaketa datuak ikusita eta tenperatura baxuetarako plaza kopurua handituko zela, baina ez zuen datu zehatzik eman eta helburuak zein baliabide zehatzak definitzea beharrezkoa ikusten dugu.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA:

1.- Udaltzaren hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hotzaldiak edo meteorologia baldintza bereziki gogorak iragartzen direnerako dauden baliabideak handitzeko aukera azter dezala, 2018ko kale kontaketa datuen ondorioz.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, hotzaldiak edo meteorologia baldintza bereziki gogorak iragartzen direnerako dauden baliabideak handitzen baditu, plaza kopurua zerrenda dezala eta Gizarte-ekintzako Kontseiluarekin zein udal taldeekin parteka dezala.

Donostian, 2018ko azaroaren 15ean

Olaia Duarte López

EH Bildu udal taldeko zinegotzia